

ENBA GATTeko akordioaren aurrean

EUSKAL nekazariak GATTen akordioa urrun dagoela badirudi ere, Euskadiko baserritarra europar nekazarien multzoan sartzen da, eta akordio honek bere garrantzia izango du bere funtsezko filosofia ez baldin bada aldatzen.

EEE eta EEBBak GATTen preakuerdo batera iritsi zirenean orain hilabete batzu, akordio hartan ez ziren euskal nekazariak bereziki garrantzitsuak ziren produktuak eztabaidatu. Gogoratu behar da, granozko zerealak izan zirela esportatzeko murrizkuntza jasan behar zutenak, bai produktuak kanpora ateratzeko eta baita ere, zereal hauei Europaren laguntzak kendu zizkielako.

Elikagai hauek, batez ere Frantzia produzitzen direnez, Europako beste herrialdeak lasai egotea akats haundi bat izan zitekeen, bertan lehen esan dudana bezela, horrelako akordio bat onartzea, etorkizunerako beste akordio batzuentzat adierazgarri eta exenplu izan daitekeelako.

Europak ezin ditzazke bere produktuak merkatu libre batean inongo babesik gabe utzi, EEBBak nahi duen bezala, ez eta bat batean PACak baserritarrentzako onartzen dituen laguntzak kendu, akordio hau dela eta. Europak bere nekazaria berezia dauka eta Europak erabaki badu bere nekazaritza berezi hori mantentzea eta laguntzea, hori EEEK aurrera eraman be-

har du edozein negoziatziotan, beste erabaki bat hartzea traizio bat egitea izango zelako Europako baserritarrei. Bestalde negoziaketa hauetan garbi ikusi da, Europa eta EEBB bi errealtate desberdin direla. Nekazaritza mailan Europa kalitatezko produktuei begira egon da kantidadean aurrean eta EEBB aldiz, kantidadea izan da garrantzizko helburua betidanik. Exenplu gisa zera izan liteke, egun hauetan entzun ditugun informazioak haragi intoxikazioekin, txekorrak hazteko *clenbuterol*-a dela eta, notizia bihurtu da gu denon artean. Hala ere esan behar da, EEBBn txekorrak hazteko aditiboak eta clenbuterola ibiltzea eguneko gauza dela, onartua bait dago. Exenplu honekin garbi ikusten da, Europa kalitateagatik gehiago arduratuta dagoela eta bi errealtate hauek ezin litezkeela multzo berdinean sartu.

Beraz, nik baserritar bezala Europari bere produktuak defendatzeko eskatuko diot EEBBren aurrean, eta EEEri exigitzen diot EEBBren aurrean postura tinkoak eduki behar dituela bere baserritarrak defendatu nahi baditu Blair House deritzon akordioaren aurrean.

Aldi berean ENBA sindikatukoa naizenez, eta nere helburua Euskadiko baserritarra denez, gogoeta berdina egiten diot nere buruari eta zera ikusten dut; Europatik eta estatu espainolek askotan datozkigun produktuak naturalagoak eta

kalitate handiago batekoak direlako. Beraz, Europak EEBBetatik defendatzeko babes berezi beharra badu, Euskadik bere babes berezia eduki behar du bere bertako produkzioa defendatzeko.

GATTeko akordioa itzuliaz, zera ikusten da: akordio hauek azken urte hauetan ekarri duten eztabaida eta entzunmina, gehienbat Frantziak hartu duen jarrerarengatik izan dela, inork ez bait du du jakin Frantziak akordioa betatuko duen ala ez. Egia da, euskal baserritarrak frantses baserritarren tokian egongo bagina postura berdina izango genuela, baina hala ere ez da ahaztu behar frantses baserritarra ez dela behin ere izan oso solidarioa Europako beste nekazariarekin.

Bukatzeko ENBA nekazal sindikatuen ikuspuntutik EEEri seriotasun handiago bat eskatzen diogu bere erabakia hartzeko orduan. Gogoratu behar da orain dela bi urte europar nekazalgora kaletan zegoela PAC erreforma zela eta, batez ere txarra bait zen europar mediterraneoeko nekazariarentzako. Orain akordio hau dela medio zera ikusten dugu, GATTeko akordio honek PACen erreforma berri bat ekarri dezakeela.

JON ARRUTI OLAZABAL

ENBA-KO LEHENDAKARIA

Klonazioa

EGUNOTAN hedabideak 'klonazioaren' fenomeno zabaltzen ari dira.

Fenomeno zientifiko hau ez da gaur egungoa; aitzitik, ingeniariak genetikoak *mezu genetiko birkodifikatzeko* dituen metodoetako bat da.

Horrela, nukleo somatikoetatik obulu enukleatueta egindako trasplanteak 'klonatuak' edo 'gemelatuak' —bi ize-nok hartzen baitituzte— lirakeke, eta genetikaren ikuspegitik berdinak lirakekeen banakoak (ehundaka, milaka) sortuko lituzkete.

Gai honen inguruko aurreneko esperimenduak Stanley Cohen eta Anni Changek egin zituzten E. Coli bakteriarekin 1972. urte aldera. Bakteria horrek, hazteko giro egokian jarriz gero, bakteriatu multzo handi bat sortzen du, eta horien kopurua gutxi gora-behera ordu erditik ordu erdira bikoiztu egiten da. Banako bakar batetik sortutako bakteriatu guzti ho-

riek klonatzen dute.

Animalien munduan lehenago ere egin dira klonazio esperimenduak saguekin, untxiekin... Aipa daiteke, esaterako, gainontzeko ardi motak baino bi aldiz altuagoa den ardi arraza bat lortu dela, haztea eragozteko duten hormonarentzat antigorputzak manufakturatzea eragitearen bidez.

Egun, ingeniariak genetikoak beharrezko ahalmena dauka klon berdinen saldo izugarriak sortzeko, klon bakoitza aurrez erabakitako zehazpenen baten arabera sortua izanik.

Ikerlariak horrek duen alde positibo eta benetan eragingarria 'ordezko piezen' Kirurgian 'klonaiak' bete lezakeen funtzioa da.

Trasplanteak, ordea, hainbat arazo planteatzen dituzte: hartzailearen immunitate sistemak trasplantatutako organoa arrotza balitz bezala identifikatzen jo-tzen du; zelulak bereak ala arrotzak diren-

zehazten duten proteinak gene multzo berezi batek kontrolatzen ditu; azkenik, biologo molekularrak oso lan gogorra egiten ari dira immunitate sistemari eta bere genei buruz.


Etorkizunean baliteke trasplantea ez onartzea eragiten duten arazoetako bat edo beste gainditu ahal izatea, trasplantea ostalariaren antigeno berak izan ditzan neurrian eginez, modu horretan guztiz oharkabea pasatu eta ez-onartzea gerta ez dadin lortzeko.

Edozein zientzi aurrerapen bezala, onerako edo txarrerako erabil daiteke; hel diezaigun gizadiarentzat garrantzia duten 'ordezko piezak' izan litezkeelako ideia-ri.

JOSE M^a BERRA INTXAUSTI

ZIENTZIA BIOLOGIKOETAN
LIZENTZIADUNA
● Erredakzioan itzulia

BERRIAKZIRI



**MANFRED
WERNER**
NATOko idazkari
nagusia
EL PAIS

«Bidega-bekeria da guri Bosnian esku ez hartzea egozte»



**XABIER
KINTANA**
Euskaltzain berria
DEIA

«Bizkaiera erreibindikatzea nire betidaniko arduretako bat dut»



**FRANCISCO
UMBRAL**
Idazle espainiarra
EL MUNDO

«Faxistei kulturak nazka ematen die ezkerrekin lotzen dutelako»



**JUAN LUIS
AREXOLA-LEIBA**
AEDko
dinamizatzailea
EGIN

«AED, el-karte moduan, herria bera da»

ZAKILIXUT

© Olariagak

